

**IURRETAKO ESKOLAKO AGENDA 21AREN  
LEHENENGO FOROA  
2007ko otsailaren 2an**

**PARTE HARTZAILEAK**

- Iurretako Udala: Iñaki Totorikagüena (Zinegotzia) eta Mikel Pagonabarraga (Teknikaria)
- Juan Orobiogitia Institutua: Irakasleak eta ikasleak
- Maiztegi Eskola: Irakasleak eta ikasleak
- Ingurugela: Joseba Etxebarria (Teknikaria)
- Durangoko Merinaldeko Amankomuazgoa: Ismene Mandaluniz (Durangaldeko Udaltalde 21eko Teknikaria)

**GAI ORDENA**

1. Ongi etorria
2. Konpromisoak gogoratzea
3. 2005/06 ikasturteko eskaeren errebasoa
4. Gaia eta diagnostikoaren azalpena
5. Eskerrak eta agurra

## AZALDUTAKO EDUKIAK ETA HARTUTAKO ERABAKIAK

### Lehenengoa.- ONGI ETORRIA

Iurretako Zinegotzia den Iñaki Totorikagüenak Eskolako Agenda 21eko lehenengo forora aurreratutako guztiei ongi etorria eman eta gai ordena azaldu die.

Eskolako Agenda 21aren garrantzia azpimarratu du, etorkizunari begira orain egindako hobekuntza guztiek ondorioak izango baitituzte. Bere ustez, ideia berri hauek gazteek barneratzeak ezinbestekoa da.

Sarrera honen ostean, forora aurreratutako pertsona guztien aurkezpena egin da.

### Bigarrena.- KONPROMISOAK GOGORATZEA

Maiztegiko ikasleek, Power Point aurkezpena erabiliz, pasa den ikasturteko konpromisoen aurkezpena egin dute (begiratu "Maiztegiko aurkezpena").

Juan Orobiogoitiako ikasleek ere, beraien onartutako konpromisoen irakurketa eta azalpena egin dute (I. Eranskina)

### Hirugarrena.- 2005/06 IKASTURTEKO ESKAEREN ERREPASOA

Mikel Pagonabarragak pasa den ikasturtearen amaieran ikasleek Udalari aurkeztutako proposamenen errepassoa egin du zein egoeratan dauden azalduz:

- Kontenedore horia jartzeko eskaera egin zuten ikastetxe biek eta, Garbikerrekin hitz egin ostean, teknikoko posible izan den tokian jarri da.
- Paperontzi eznahikoa edo egoera txarrean zeudela azaldu zuten ikasleek (Bidebarrietan, Maspen, Kultur Etxean eta Bixente Kapanagan); Udalak proposamen hau jaso zuenetik aldatu ditu batzuk eta beste batzuentzako aurrekontua gorde eta eskatu dituzte. Mikelek, dena den, paperontziak egoera onean mantentzeko laguntza eskatu die ikasleei.
- Herri guztian zehar hobetu beharreko puntu batzuk adierazi zituzten: estolda apurtua, baldosak apurtuta, zuhaitz falta, Kultur Etxeko bidegorria zikina, etab. Hobetzeko proposamen asko izan zirenez, gatzuk hobetu dituzte baina Bulego Teknikoaren

konpromisoa gutxinaka ahal diren guztiak hobetzen joango direlako da.

#### Laugarrena.- GAIA ETA DIAGNOSTIKOAREN AZALPENA

Ikastetxe bietako ikasleek aurten aztertuko duten gaia azaldu dute eta diagnostiko egiteko emango dituzten pausuak aipatu dituzte (Maiztegiko aurkezpena eta II: Eranskina begiratu)

#### Bosgarrena.- ESKERRAK ETA AGURRA

Alkateak egindako lan guztiarengatik eskerrak eman dizkie eta hurrengo fororako deialdia egin die partaide guztiei.

## **I. ERANSKINA**

# HARTUTAKO KONPROMISOAK

- Posta elektronikoz jasotako mezuak ahal den gutxien inprimatuko ditugu, eta beharrezkoa denean fotokopiagailuan inprimatuko dira.
- Informazioak inprimatu aurretik papera ondo aprobetxatzen saiatuko gara.
- Plastikoak sailkatuko ditugu jantokian eta irakasle gelan eta edukiontzira eramango ditugu. Patioan ere banaketa hori egiten saiatuko gara.
- Jantokian sobratzen den ogia animalientzat gordeko dugu.
- Geletako kutzak zaintzen eta hobeto erabiltzen saiatuko gara.
- Koadernoak ondo aprobetxatuko ditugu.

Lehendik hartuta zeuden paperarekiko erabakiak ere berresten dira:

- Ikastetxeak bi eratako papera erosiko du, zuria eta birziklatua.
- Paper birziklatuaren erabilera bultzatuko da.
- Kanpora bidaltzen diren informazioak ( gurasoei, udalera, delegaritzara...), ahal den neurrian paper birziklatuan bidaliko dira.
- Gutunazal birziklatuak erabiliko dira.
- Gutunazalak berrerabiltzen saiatuko gara: azterketak gordetzeko, informazioak artxibatzekeo...
- Geletan bi eratako papera egongo da, birziklatu garbia eta berrerabiltzekoa.
- Zirriborroak, eragiketak..... berrerabiltzeko paperean egitea bultzatuko da.
- Gehiago erabili ezin diren paperak, birziklatzeko bilduko dira.
- Papera aurrezteko ekintzak bultzatuko dira: azalpenetarako gardenkiak erabili, fotokopiak alde bietatik atera...

IKASLEEN ORDEZKARIAK

IRAKASLEEN  
ORDEZKARIAK

GURASOEN  
ORDEZKARIAK

LANGILE EZ IRAKASLEEN  
ORDEZKARIAK

## II. ERANSKINA



## "JARRERAK HOBETZEN" INGURUMEN PROIEKTUA

7



### 2006-07ko 1. FOROA

AZALDU BEHARREKOA. Gidoia

- ✓ **Gure ikastetxean ere aurten landuko den gaia AZTARNA EKOLOGIKOA da.**
  
- ✓ **Hasiera baten Ingurumen Batzordea osatu zen. Aurtengo partaideak: 8 guraso, 11 ikasle, 5 irakasle eta ez-irakasle bat.**
- ✓ **Lehen bilera azaroaren 8an egin zen . Bileran tratatu zena:**
  - Iaz egindakoaren laburpena.
  - Ikasturte honetako diagnostikoko ekintzak komentatu eta onartu ziren.
  
- ✓ **Bilera ostean onartutakoa martxan jarri zen:**
  
- ✓ **Diagnostikoa iaz bezala 3 esparrutan egin da:**
  - **Curriculum** arlokoa egiteko mintegika aztertu dugu nolako trataera duen gai honek arlo bakoitzean.
  - Estamentu guztien **partaidetza** ere aztertu da.
  - **Kudeaketan** hainbat ekintza egin dira:
    - Galdetegiak bakoitzaren aztarna kalkulatzeko. Guraso, irakasle eta langile guztiak galdetegi bat bete dute eta gero gelaka aztertu dira atera diren emaitzak.
    - Ikasleak ordenagailuen bitartez kalkulatu dugu bakoitzaren aztarna eta gelaka atera ditugu ondorioak.
    - Ikastetxeko aztarna kalkulatzeko alde batetik ordenagailuko galdetegia bete da eta bestetik energia kontsumoaren egoera aztertu dugu azken urteetako elektrizitate, ura eta gasolioaren fakturak begiratu.
    - Honekin lotuta beste bi behaketa egin ditugu ikastetxean. Alde batetik argiak piztuta edo amatatuta uzten ditugun gelak hutsik daudenean, jolasorduetan, eguerdian, ... Hau aste oso baten egin dugu (kontserjeak arduratu dira behaketa egiteaz)  
Bestetik beste ikerketa batzuk egin ditugu: radiadorak ondo kokatuta dauden, zein egoeratan geratzen diren ikastetxeko aparailuak, nolakoak diren iturriak...
  
- ✓ **Guztiaren ondorioak ateratzen direnean aurtengo helburuak eta ekintza plana finkatuko dira.**

